

HOSTOZ HOSTO ERANTZI!

ERAKUSKETA

OKENDO KULTUR ETXEA

2020ko azaroaren 16tik 2021eko urtarrilaren 30era

Ordutegiak

Astelehenetik ostiralera 10:00-14:00 / 16:00-20:30

Larunbatetan: 10:00-14:00 / 16:30-20:00

Igande eta jaiegunetan: itxita

Ugariak eta anitzak dira **Aran Santamaria** artista zumaiarrak bisitatutako liburu azokak; zenbat eta bereziagoak orduan eta erakargarriagoak. Eta bertan ikusitako liburu eder horiek gero nola moldatu eta birsortzeko ahaleginean hasi ohi da Aranen irudimena; bera konturatzerako eta eskuekin lanean hasi aurretik, irudimena martxan duela. Papera eta liburuak maite ditu Aranek eta maitasun hori bere lanean nabaria izateaz gain, berarekin lanean aritzen direnei helarazten saiatzen da; batez ere bere ohiko lagun diren haur eta gazteak. Eta, horretarako, hainbat tokitan antolatutako arte tailerrez baliatzen da; berak dioen moduan, *“haur bakoitzaren txinparta zirikatzea gustatzen zaidalako, eta batez ere naturaltasuna dudalako maite”*.

Liburu zaharrak direla eta horiek oinarri hartuta, pop up teknika erabiliz, *liburu berriak* osatzen ditu Aranek; eta horretarako desplegableak, collageak, zuloak edota hariak bezalako teknika anitzak erabiltzen ditu artistak. Beti ere istorio berriak irudikatuz eta sormen lanak garatuz; paperezko istorioak eraikiz eta paperezko arkitekturan arituz.

Bide beretik, eta sorkuntza prozesuan beste urrats bat gehiago emanez, nabarmendu behar dira ere Aranek ohikoak dituen *enkarguz egindako liburuak*; liburu pertsonalizatuak direnak, bezeroari egokitutakoak, eta haren liburu kuttunak, argazkiak, zaletasunak, lanbidea, ametsak... biltzen eta adierazten dituztenak.

KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea 8 - 20003 Donostia

T. (0034) 943 481 161 E. kultura_komunikazioa@donostia.eus

www.donostiakultura.eus

Halaber, *kolaborazio* aipagarri anitz ere burutu izan ditu artistak; besteak beste, Zumaiaiko *Txingurri loradendako* erakusleihoan egindako moldaketa lanak; *The Balde* aldizkarirako pop-up formatuan sorturiko aldizkari eraberritua; “*Maite ditut maite*” arte liburuaren azala edota “*Soka gorri*” emakumearen egunerako egitarauaren esku programa.

Hau guzti hau eta gauza gehiago ezagutu, dastatu, usaindu eta sentitu nahi bada Okendo Kultur Etxeak antolatutako erakusketa honetara hurbiltzea baino ez da; izan ere, Aranek bere webgunean dioen bezala, “*Anish Kaporren urdina besarkatu edota Agnes Vardaren bihotza entzuteko aukera izango duzu,*” finean “*Bihotzarekin pentsatu daitekeelako eta buruarekin maitatu*”.

IBILBIDE ARTISTIKOA

- Zeramika ikasi zuen **Debako Arte eskolan** eta **Aiako tailerreko** kide gisa aritu zen urte luzeetan bere hastapenetan.
- **Zelai azpi** kolektiboarekin ere egin zituen erakusketak, instalazioa interesatzen zitzaion garai horretan.
- Azken urteetan papera eta liburuekin egiten du lan gehien:
 - Liburu dendetan erakusketak: *Anti (Bilbo)*, *Kaxilda (Donostia)*, *Garoa (Zarautz eta Donostia)*, *Chundarata (Iruñea)*.
- Instalazioak eta eskultura publikoa ere landu du; hala nola, “*Zilarrezko ispilua*” 8 *begirada* egitasmoaren parte izanik edota “*Sasi guztien azpitik*” interbentzioan parte hartuz.
- **Ander Hormazuri** artista zumaiarrarekin elkarlanean, taberna eta egoitza desberdinetan, bertara egokitutako erakusketak antolatu izan ditu ere; horien artean, *Kabi* taberna, *Lukas* ardotegia edota *Portalea* kulturgunea.
- Azokak ere maite ditu, paperezko sorkuntzak erakusteko leku aproposak direnak, eta horietako hainbatetara eraman ditu bere lanak; besteak beste, *Bilboko BALA* edota *Gasteizko MAZOKA*.

- Hezkuntzan ere aritzen da, gehienetan hurrekin: *Zumaiako kultur etxean, Zarauzko artezaleaken, Balan , Artium-en...*
- Azkenik, bere lanak ikusgai egoten dira *Ekain Galerian* (Donostia), Bilboko *Narata eta Magnolia rare books* dendatan, Iruñako *Odjeteria de los días felices* dendan eta, noski, nahi duenarentzat, irekia dago Zumaiian duen estudio tailerra.

Jarduera osagarriak:

Ostirala, azaroak 27, 18:30ean: **bisita gidatua**. euskaraz

Ostirala, abenduak 11, 18:30ean: **bisita gidatua**. gaztelaniaz